

Familia agurgarria:

Irailean 2022-2023 lanbide heziketan ikasturteari ekingo diogu. Hasteko, kurtso normalizatua espero dugu. Hala ere, Zaraoben, gure eskuetan dagoen guztia egiteko konpromisoa hartzen dugu, ikasleen hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, bai eta euren eta guztion ongizatea bermatzeko ere.

Dokumentu honek, zuek agurtzeaz gain, kurtso hasierako oinarrizko informazioa emateko helburua du.

Beste kurtsoetan ez bezala informazioa modu digital batean helaraziko dugu, beraz, mesedez [web orrialdea](#) kontsultatu. Sareetan ere eskuragarri egongo da.

Jarraian 2022-23 kurtsoari begirako informazio esanguratsuena jakinarazten dizuegu.

1. **Lanbide Heziketako Kurtso hasiera:** irailaren 8an, osteguna aurkezpen eguna, goizeko **09:00etan** **2. mailakoak** eta goizeko **09:30etan** **1. mailakoak**.
2. Hezkuntza sailak agintzen duenaren arabera irailaren lehen astean WEB GUNEAN ETA SARE SOZIALETAN argitaratuko dugu aurkezpen egunaren ordutegia.
3. Kurtsoen **egutegiak** web orrialdean ikus daitezke, hezkuntza eskaintan atalean, ziklo eta kurtso bakoitzean.
4. Urteroko ordainketak. MATRIKULAN ORDAINDUTAKOAK.
5. Eskola ordutegia: 2022-23 ikasturteko ordutegia 08:30-14:30 izango da. Sarreran metaketak saihesteko 08:20etik aurrera iristea gomendatzen da.
6. **Osasun neurriak:** Hezkuntza Sailak esango digu zein neurri hartu behar diren 2022-2023 ikasturterako Osasun neurriei dagokien Hezkuntza sailak bidalitako informazio guztia web orrialdean eskegiko da.

Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra.

«Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari».

## AMURRIKOAK BERTAKOAK EZ DIREN IKASLEENTZAKO INFORMAZIOA

Leku ezberdinetatik datozkigu ikasleak Zaraobe Institutura, haientzako garraiatzeko posibilitate publikoak ere badaude.

- **URDUÑA-LUIAONDO-LAUDIO:** RENFE (Tfno. 912 320 320)  
<https://www.renfe.com/es/es/cercanias/cercanias-bilbao>
- **ARTZINIEGA – AIARA - OKONDO . VITORIA:**
  - Autobuses LA UNION <https://www.autobuseslaunion.com/>  
Tfnoa 94 427 11 11 / 945 26 46 26
  - Arabako Foru Aldundiak ere garraioari buruz informatzeko honako telefonoa du: **945 18 18 18** <http://www.araba.eus/alavabus/>

## ZARAOBE INSTITUTUKO KOMUNIKAZIO BIDEAK

- Gure web helbidea hau da: <https://zaraobe.net>

Bertan oso erabilgarria den informazioa eskura dezakezue.

- Zalantzarik izanez gero, deitu mesedez ikastetxeko telefonora **945 393 000**, goizeko ordutegian irailaren 1etik aurrera edo bidali mezu bat web orrian bitartez <https://zaraobe.net/kontaktua/> edo posta honetara [fp@zaraobe.net](mailto:fp@zaraobe.net).

Uda ona igaroko duzuelakoan

Agur bero bat.

Adeitasunez, Roberto Marín Requena  
Zaraobe Institutuko Zuzendaria.

Amurrion, 2022ko ekainean.